

## AGERIKO BILKURA BEREZIKO BATZAR-AGIRIA

Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean, 2004ko uztailaren 23an, arratsaldeko 6etan, bildu da Euskaltzaindia, Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzainaren sarrera ospatzeko.

Bildu dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; B. Oihartzabal, Iker sailburua; A. Urrutia, Jagon sailburua; P. Altuna, J. A. Arana Martija, A. Arejita, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, P. Goenaga, A. Iñigo, E. Larre, J. M. Lekuona, Tx. Peillen; J. San Martin eta P. Zabaleta. Ezin etorria adierazi dute P. Ondarrak eta A. Zavalak.

J. A. Retolaza, euskaltzain ohorezkoa; J. Agirreazkuenaga, A. Aranburu, X. Aranburu, G. Aulestia, J. Aurre, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, L. Baraiazarra, X. Bidegain, X. Erdozia, J. L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, J. M. Iriondo, M. P. Lasarte, A. Muniategi, K. Rotaetxe, P. Telleria, A. Toledo, P. Uribarren, M. Urkia, M. Urrestarazu, J. Zearreta eta J. R. Zubimendi, urgazleak; Felix Muguruza eta Patxi Galé batzordeki-deak eta Euskaltzaindiko langileak.

Mahaiburuan eseri dira: Javier Uriarte, herriko alkatea; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Nekane Alonso, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiko lehen idazkaria eta Xabier Kintana, idazkaria.

Aretoan, herri-agintari eta euskal kulturako ordezkari ugari izan dira, besteak beste hauek: Jose Luis Bilbao Bizkaiko Diputatu Nagusia; Jose Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Belen Greaves, Bizkaiko Kultura diputatua; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia; Abel Muniategi, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordea; Maria Angeles Larrauri, Durangaldeko Merindadeko presidentea; Garaiko alkatea (Jose Loizate) eta Mikel Etxeita zinegotzia; Mañarikoa (Javier Arteaga); Otxandiokoa (Aritz Otxandiano); Maria Jose Balier, Durangoko alkateordea eta Jose Antonio Delgado zinegotzia; Maria Asun Ardanza, Ermuko alkateordea; Mari Luz Azumendi, Mallabiko zinegotzia; Ronaldo Isoird, Berrizko zinegotzia; Agustín Asua, Elorrioko alkatea; Arantza Aranburu (EA), Fernando Castillo (PSE) eta Angel Rodrigo (PP) Añadiñoko zinegotziak; Jon Larrinaga, Gobernuaren Ordezkaritzako aholkularia; Nerea Mujika Gerediagako lehendakaria; Balendin Lasuen, Anton Mari Aldekoa-Otalora eta Jon Irazabal, Gerediagako kideak; Jose Mari Arregi eta Jon Lopategi bertsolariak; Jose Jabier Abasolo «Tiliño», Bizkaiko Dantzarien Biltzarrekoa; Patxi Roman eta Kepa Bengoa Abañalako ordezkariak; Odile Krutzeta, Euskadi Irratiko zuzendaria; Bingen Zupiria, Euskal Telebistako zuzendaria; Koldo Altzibar, Loiolako Jesuiten nagusia eta Marisa Barrena eta Jesus Mari Salterain Antolamendu batzordekoak.

Ongietorria eman diete Euskaltzaindiari eta bertaratu diren guztiei Nekane Alonso Batzar Nagusietako Mahaiko lehen idazkariak eta Javier Uriarte alkateak, hitzaldi-txo bana eginez.

Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 57.8 eta 57.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu.

Horrela, euskaltzain berriaren bila irten dira Andres Iñigo –azken aurrez izendaturiko euskaltzaina– eta Jose Antonio Arana Martija –haren aurkezleatariko euskaltzaina–, eta batzar-aretoan sartu da euskaltzain berria.

Jarraian, Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzainak bere sarrera-hitzaldia irakurri du, «Euskal kulturagintza 60ko hamarkadan» izenekoa. Arlo hauek ukitu ditu besteak beste, hizlariak: lehenik, J. M. Satrustegi eta A. Eguzkitza euskaltzain hil berrien gorazarrea egin du, eta ondoren, 1960ko hamarkadako kulturagintzaren arlo hauez aritu da: Euskaltzaindiaren biltzarrak eta barne-egituratzea, euskal kantagintza, euskal artistak, dantza, antzerkia, folklorea, euskarazko klaseak eta alfabetatze-kanpainak, ikastolen sorrera, euskara batua, Gerediaga Durangoko Merindadeko Adiskideen Elkartearen sorrera eta Liburu eta Disko Azoka. Azkenik, ondorio gisa, garai hartako kulturagintzaren ezaugarriak aipatu ditu: posibletasuna, hiritartasuna, zeharkatasuna, batasuna eta naziotasuna.

Segidan, Jean-Louis Davant euskaltzainak bere erantzun-hitzaldia egin du. Hasteko, Euskal Herriko bi muturrak aipatu ditu, Mendebaldea eta Zuberoa, eta euskara batuaren garapenean bi alde horiek izan duten eragina. J. L. Lizundiak kulturagintzan izan duen emaitzaz aritu da, ondoren: lehenik, Euskaltzaindiaren barneko egituratzea egin duen lan bikaina, batez ere Onomastika arloan egindako ikerketak eta euskal kulturako beste hainbat arlotan eta politikan emandako urratsak. Amaitzeko, Akademiaren etorkizunaz hitz egin du Davantek eta erreforma egiteko beharra aipatu: «Erreforma sakonen beharra ikusten dut, eta ez naiz bakarra. Horiez gogoeta sakonak egingo ditugu nik uste euskaltzain guztiok elkarrekin. Hor gako eta giltza baliosa izanen zaigu, Lizundia, gure oroimena, ikuspegi seguruekin».

Gero, denak zutik direlarik, Euskaltzainburuak J. L. Lizundiari laudoriozko hitzak esan dizkio eta euskaltzain oso aitortu du, dagozkion diploma eta domina emanetz. Ondoren, zorionak eman dizkio eta besarkatu egin du, eta, jarraian, euskaltzain guztiak euskaltzain berriari zorionak ematera hurbildu dira.

Azkenik, Angel Arkarazo eta Jose Antonio Azkorbebeitia Gerediagako kideek *banango zaharra* izeneko dantza egin diote euskaltzain berriari, eta, Abadiñoako Udalaren izenean, Javier Uriarte alkateak Muntzaratz dorretxearen irudiaren aldakia oparitu dio Jose Luis Lizundiari eta Parisen astebeteko egonaldirako ordainduriko gonbita-txartela. Gerediagako elkartearen izenean, Balendin Lasuenek, Vicente Larrea eskultorearen neurri txikiko obra bat eskaini dio Lizundiari. Garai, Izurtza eta Mañariko udalek, lehenengo garaietan kofradietan erabiltzen zen pitxar bat eman diote, herri horietako idazkaria izan baitzen J. L. Lizundia.

Une honetan, X. Kintana idazkariak, amaitutzat eman du ageriko bilkura berezia.

Ekitaldiaren ondoren, batzar-etxearen aurreko zabalgunean, euskaltzain berriaren omenez zenbait dantza-saio burutu dira: *Alkate* soinua; Kriskitin taldekoek lagunduta, *Agur-dantza* eta *Platilu* soinua; eskualdeko dantzariak eskainita; dantzari-dantza eta koplak (Beñat Gaztelurrutiak eta Anton Mari Aldekoa-Otalorak paratu eta kantaturikoak). Amaiera moduan, herri-afaria izan da Abadiñoako *Mendizabal* jatetxean.